

Liburuaren eguna eta literatur saioa ospatuko dira gaur Aizkibel Liburutegian

AZKOITIA. DV. Gaur asteazkena, apirilak 2, nazioarteko haur eta gaztetxoen liburuaren eguna ospatuko da Aizkibel Udal Liburutegian. Arratsaldeko 18:00tan Irrintzi taldearen eskutik antzerki emanaldia izango da bertan, "Zuk-Zuk jaunaren alfabetoa" lanarekin. 3-12 urte bitarteko haurrentzat zuzendua dago eta sarrera doan da. Antzezlan hau Bernardo Atxagak idatzitako izen bereko ipuinean oinarrituta dago. Aktoreak eta objektuak nahasten dira lanean, txotxongiloak, kasu honetan letrek, protagonismo berezia hartzen dutelarik.

Bestalde, literatur saio berri bat ere izango da arratsaldeko 19:00tan. Apirilaren 12an, larunbata, Aizkibel Liburutegia udaletxeko kontzejupean izango da goizean zehar nazioarteko liburuaren eguna ospatzeko, eta Abarketatxo Ludoteka eta Gazte Informazio bulegoarekin batera ekitaldiak izango dira haur, gazte eta helduentzat.